


IRAINTEA...

...hitzez JOTZEA



ERMUKO UDAL LIBURUTEGIAN MARTOXAREN 29TIK APIRILAREN 16RA BITARTEAN IKUSGAI IZANGO DA JUUL ERAKUSKETA, IRAINTZEA HITZEZ JOTZEA DA IZENBURUPEAN. JUUL, GREGIE DE MAEYER IDAZLEAREN JUUL LIBURUAN OINARRITUTA DAGO, KOEN VANMECHELEN ILUSTRATZAILEAREN IRUDIEKIN. BERDINEN ARTEKO INDARKERIA DA KONTAKIZUN HONEN MUINA, EGURREZKO 12 ESKULTUREN BIDEZ IRUDIKATUTA DAGOENA. IKUSPUNTU ARTISTIKOAZ GAIN, ERAKUSKETAK EGUNEROKO PORTAEREN INGURUKO GOGOETA EGITEA DU HELBURU.

Ekimen honen bultzatzaileak Bizkaiko eta Gipuzkoako 11 liburutegi dira.

Ados jarri ziren erakusketa herri ezberdinetara ekartzeko, Ermuko Udal liburutegia horietako bat da. Erakusketak, irainak, laidoak eta beheramenduak ere, indarkeriazko ekintzak direla agerian uzten du Juulen istorioaren bitartez.

Erakusketaren moldaketaren arduraduna, Gijoneko Udaleko Kultur Fundazioko Hezkuntza Programen zuzendaria den Paco Abril ipuin kontalaria eta idazlea da. Juan Stové artistak, 1998an Gregie de Maeyeren liburuko ilustrazioak egurrezko eskulturetan bihurtu zituen. Orduetik herri ezberdinetako eskola eta liburutegietan ikusgai egon da erakusketa.

Gazteenei zuzendua

Erakusketa, 10 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei dago zuzendua. Hala ere, ekimen honen bultzatzaileen esanetan, "guztiontzat izan daiteke baliogarria".

Bertan, Juul egurrezko panpinaren istorioa kontatzen da. Irain egiten diote bere ingurukoek, alabre, oilar...deituz. Bere gorputzarekin zerikusia duen edozein irain egiten diotenean bere gorputz atal bat mutilatzen du Juulek, buruarekin bakarrik geratu arte. Azkenean, Nora izeneko neskatxo batek den bezala onartzen du eta maitatzen du. Maitasun

istorioa da. Juulek jendea bera maitatzen du, eta aldi berean bera maitatua izatea nahi du, besteen hurbiltasuna eta besteei gerturatzea nahi du.

Liburutegiak herriko eskolekin hitzartu ditu bisita gidatuak eta hauen helburua, ikasleek ahozko indarkeriari eta bere ondorioei buruz gogoeta egitea da. Horretarako, Oihana Etxegibel, erakusketarekin esperientzia daukan begiralea izango da erakusketa gidatuko duena. Gida didaktiko bat emango zaie parte hartzaileei, orri markatzaile bat eta kartel iragarlea.

Paco Abrilek esan bezala, "helduren batek pentsa dezake gaia gordinegia dela haur mentalitate batentzako, edo umeei agian ez dutela istorioa ulertuko, baina egunero inguruan ematen den egoera ongi ulertzen dute." Bestalde, bisita gidatuetan, begiraleak istorioa kontatu aurretik, bertaratuei galderak egiten dizkie, ondoren Juul istorioa kontatzen die eta azkenik beste galdera batzuk egiten zaizkie haurrei. Izan ere, erakusketaren izenburua bera, Paco Abrilek erakusketa batean izandako esperientzia batetik jasotako dago. Haur eta gazteei ariketa bat egiteko eskatzen zaie, iraina definitu behar dute gorroto hitza erabili gabe. Neskato batek, horrela definitu zuen iraina: "iraintzea hitzez jotzea da".

Testua: Aiazne Aiestaran
Argazkia: Julio Calleja



URRETA

burdindenda

* Etxea

* Giltzak

* Tresneria


* Zerrailgintza

* Brikolrin

* Kit altzariak

* Rielak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMOA



ESTETIKA-EDERGINTZA

Aldapa 1

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

943 17 60 52